

ek!

eta kitto!
euskararen elkarteak

2023ko urriak 20 · 1286 zenbakia



BERBETAN EUSKARA DENON ESKURA



Etxeko aseguruak
estimatzeko duguna
babesten du.
Aitzariak,
elektrodomestikoak,
arropa, balio
handiko gauzak...
Sartu eta azalduko
dizugu!

**ETXE
ASEGURUA**

EUKI
ASEGURUAK

Euki-n zure etxearen
neurriko babes onena
eskaintzen dizugu

INFORMAZIO GEHIAGO: eukiseguros.com



osasun gida

Dentistak

**Odontologia
Biologikoa**

Miren Albistegi Sojo

Errebal, 14 - 1. B 678 48 57 52
malbistegi@gmail.com



**P. Echeverria
A. Esnaola**

Hortz Klinika Clínica dental
Fermin Calbeton 19-3 esk. EIBAR
943 20 72 17 - 688 432 808
@egudent

**MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN ODONTOLOGOA**

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Implanteak

Bidebarrieta, 7-1 esk. 843-702886

arat.
HORTZ KLINIKA CLINICA DENTAL

**ZURE
IRRIBARRE
ONENA**

Toribio Etxebarria Kalea, 4
20600 Eibar
943 201 831
www.aratclinika.com



EIBAR HORTZ KLINIKA
CLINICA DENTAL

Maitane G. Iñiguez
Odontologiam Lizentziatua
943 20 72 17

San Agustín Kalea, 4 (Eibar)
943 537 076 - 688 884 808
info@eibarclinicadental.com
www.eibarclinicadental.com



Unzaga Plaza

Hortz Klinika - Clínica Dental

M. Orozco Ventura doktorea
Unzaga plaza 5. 4º I. Eibar
Tel.: 943 70 23 85

Fisioterapeutak



ANE MENDIA

943 20 72 17

- INDIATERAPIA
- KIDU, LENGUAK
- Tuzen eta TRIZERENIA IA
- 4. eta 5. etapa - HERRIARRAK

**FISIOTERAPIA
ZENTRUA**

ARRAGUSTA, 20
Tel: 943 53 06 42
www.mendiafisioterapia.com

**GASTESI
Hortz-Klinika**

Errebal, 9 - 1. C 943 70 00 90 / 688 68 96 02

Odontologia orokorra eta prebentzioak / PADI
Ortodontzia / Implanteak / laser teknologia



bista eder
clínica dental hortz klinika

Deitu | 943 70 00 82

bista eder, 19
www.bistader.es



IRAZABAL
clínica dental

**Irribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK**

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.
Thoa, 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

Ginekologia

**Dra. Laura
Martinez**



**Dr. Alejandro
Recas**

**GINECOLOGÍA
EIBAR**

- Ginekologia
- Obstetrizia
- Ekografia 3D / 4D

Tel: 659 56 13 65 San Juan, 5 - 2. D
dr.recas@gmail.com

dra.martinezgallardo@gmail.com

www.ginecologiaeibar.com



943-206776

Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



etakitto.eus

Urriaren 2a Arkitekturaren Nazioarteko Eguna dela eta, horren aitzakiarekin, Arragueta kaleko 20. zenbakian dagoen Beistegui Hermanos (BH) eraikina aintzatesteko ekitaldia egin zen, Euskal Herriko Arkitektoen Elkargoarekin (EHAEO Gipuzkoa) batera aritu den Docomomo Iberico fundazioaren ekimenez. Bide batez, eraikina jaso zuen Ramon Martiarena Laskurain arkitektoari omenaldia egin zitzaion, berak proiektatu eta jaso zuen eraikinaren sarreran bere oroimenezko plaka jarrita.



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarte

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

603 598 285

FAXA 943 20 28 72

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkarte@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekaria

HIZKUNTZA ARDURA

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Silbia Hernandez

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Eskutitzak



Astelehen eguerdian egingo den manifestaziora batzeko deia

Datorren astelehenean, hilak 23, eguerdiko 12:00etan, ia 6 urtetik hona ohikoa den bezala, pentsiodunak Untzaga plazan bilduko gara, eta, kasu honetan, manifestazioa egingo dugu Eibarko kaleetan, pentsio publiko eta duinak eskatzen jarraitzeko. Gobernu berriaren inbestidurarekin gertatzen dena alde batera utzita, inbestidura-prozesu bat bermatze aldera alderdi politikoen artean egiten ari diren negoziazioetan, pentsio duinen aldarrikapenak kontuan izan behar dituztela uste dugu pentsiodunen mugimendutik, eta une egokia dela pentsiodunen oinarritzko eskubi-deak eskatzen jarraitzeko. Gogoratu, halaber, hilaren 28an Madrilan izango garena Estatuko gainerako pentsiodunen plataformekin, alderdi politiko guzti-guztiei gogorazteko zein diren gure eskaerak. Pentsioen igoerak nola zehazten diren zain, 1.080 € eskatzen jarraitzen dugu, hamalau ordainsaritan kobratu beharreko gutxieneko pentsio gisa. Generoen arteko aldea behin betiko desagertzea, bai lanpostuetan, bai pentsio bat kobratzeko orduan, pentsiodunen mugimenduarentzat lehentasuna izaten jarraitzen du. Alarguntza-pentsioekiko diskriminazioak, gure ustez, %100ekoa izan behar du, erretiro aurreratuaren murrizketen erreformak eta koefiziente murriztaileak indargabetu behar dira, pentsioaren % 40rainoko murrizketak jasaten baitituzte, nahiz eta Gizarte Segurantzaz 40 urte kotizatu-ta izan. Eta, jakina, zerbitzu publikoen defentsa, prestazioen kalitatearen berme gisa.

Dei egiten diegu Eibarko pentsiodun guztiei bidezkoak diren gure aldarrikapenak lortzeko funtsezko eta beharrezkoa den mobilizaziora joan daitezen. Borroka da bide bakarra! Berdion dio norik agintzen duen, pentsio publikoak defendatu beharra dago!

Eibarko Pentsiodunen Plataforma

Hortik esanak



Pedagogia eskolan hasi behar da: esan behar zaie bizitza oso luzea izango dutela, etengabe ikasi beharko dutela, trantsizioak izango dituztela, osasuna zaindu beharko dutela... Badakigulako sistema ez dela jasangarria, gure gurusoek eta aitita-amamek baino lan gehiago egin beharko dugula. Bizitza luzatzean, diru gehiago beharko dugulako; eta hor bi aukera duzu, edo aurreratzen duzu edo lan gehiago egitea tokatuko zaizu. Gainera, hori ona da, okupatuta egon behar da bat. Mentalki prestatuta ote gauden 120 urte bizitzeko? 100 urterekin ere, zure lagun guztiak hilda badaude, igual ez duzu nahi gehiago bizitzerik, merezi al du horrela? Nire perspektiba da bizitzea tokatzen zaiguna modu onenean izan dadila.

DIEGO BERNARDINI, familia-medikua

Ameriketara emigratu behar izan genuen, erlijio ordenatan sartu behar izan ginen, europar armadetan mertzenario bezala jarduteko geure burua alokatu, burdina atera eta siderurgia landu, itsasontziak eraiki, nekazaritza, itsas komertzioa eta arrantza... Orduan, etorkizuna prestatzea eta bizi osorako iraungo zuten gauzak egitea kultura zen. Gaur guztiz kontrakoa da. Egiatan, gure guraso eta aitona-amonek egin zutenaren errentetatik bizitzen ari gara, batzuk besteei begira geratuz, eta beste batzuk zerbaite egiten dutenaren plantak eginez, gero gauzak dauden bezala utzi arren. Hori galdu dugu: beste aukerarik ez izateak ematen duen txispa, ahal den bezala batu eta aurrera jotze hori.

JUANJO GABIÑA, prospektiban aditua

Efizientzia komunikatiboaren mesedetan euskara sinplifikatu behar ote den, horren inguruko debatea ireki nahi dute. Nor gara gu, zer gara gu, euskara sinplifikatzeko? Euskalgintzaren zeregina da hori? Promozio plan estrategikoak egitea gauza bat da; eta, beste bat, euskara hizkuntza naturala dela ahaztea, bere kasa garatu eta aldatu behar dena. Ala, kanpotik, euskara (batua) asmakizun bat dela eta, barrutik, plastikozkoa dela diotenei, arrazoia eman behar diegu legezko hizkuntza asmatuz?

ANGEL ERRO, zutabegilea

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

OREKAN → Oreka gordeta. Hegaztiak aire-korronteez baliatuz geldi-geldi egoten direnean. "Arranuak aire epela aprobetxatzen dabe ordutan orekan egoteko".

ORE-MAHAIXA → Orea egiteko mahaia, artesa. "Gaurkuagaittik taluak egin biharko dittuzu ore-mahaixan, ez dabe ba ekarri urunik".



Idurre Iriondo

Farmaziak

- BARIXAKUA 20**
 - EGUNEZ | Zulueta** (San Agustin, 5)
 - ZAPATUA 21**
 - EGUNEZ | Elortza** (J. Gisasola, 18)
 - DOMEKA 22**
 - EGUNEZ | Iraundegi** (Calbeton, 19)
 - ASTELEHENA 23**
 - EGUNEZ | Mendinueta** (Urkizu, 6)
 - MARTITZENA 24**
 - EGUNEZ | Elortza** (J. Gisasola, 18)
 - EGUAZTENA 25**
 - EGUNEZ | Zulueta** (San Agustin, 5)
 - EGUENA 26**
 - EGUNEZ | Barandela** (Z. Agirre, 4)
 - BARIXAKUA 27**
 - EGUNEZ | Castaño** (J. Etxeberria, 7)
- GAUEZ BETI**, 2023an,
Castaño (J. Etxeberria, 7)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekuia	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Belen Iriondo Bilbao**. 62 urte. 2023-10-05.
- **Jose Campal Martin**. 97 urte. 2023-10-06.
- **Ramon Bengoa Milikua**. 67 urte. 2023-10-07.
- **Eulogio Vinagre Blanco**. 93 urte. 2023-10-09.
- **Magdalena Agirre Etxaniz**. 92 urte. 2023-10-09.
- **Manuel Barriga Rodriguez**. 87 urte. 2023-10-10.
- **Antonio San Miguel Pedrosa**. 79 urte. 2023-10-10.
- **Ana Mari San Vicente Etxeberria**. 92 urte. 2023-10-10.
- **Marga Arizmendiarieta Arizmendiarieta**. 76 urte. 2023-10-11.
- **Julian Azkarraga Fuldain**. 95 urte. 2023-10-13.
- **Jose Gisasola Agirrebeña**. 87 urte. 2023-10-15.

Jaiotakoak

- **Salma Amana**. 2023-09-30.



Elena Zabaleta Lizarralde irabazi du Sagardo Egunean zozketatu zen saria

Elena Zabaleta Lizarralde eraman du Sagardo Egune-ko zozketako saria, Isasi okindegian saldutako 03016 zenbaki saritua berea zen-eta. Horrela, luxuzko aste-burua pasatuko du hilaren 28 eta 29an, Donostian, berak nahi duen lagunarekin batera: zapatu horretarako Hotel de Londresen bi lagunentzako gaua, afa-ria eta armosua irabazi ditu, eta hurrengo egunerako, berriz, Arima Hotel&Span 90 minutuko spa eta baz- karia. Zorionak!



Itsasne Garatek eraman ditu sagardogileek emandako 13 botilak

Sagardo Eguneko argazki originalaren saria irabazi duen Itsasne Garatek aste honetan hartu ditu 13 sagar- do botilak, ...eta kitta! Euskara Elkartearen lokalean. Beste batzuetan bezala, Sagardo Egunean egindako argazkiak #sagardoetakitto traolarekin Instagrameko @gaztekitto kontuan partekatu duzuen guzti-ekin egin dugu lehiaketa. Eskerririk asko parte hartu duzuen guzti-ekin eta zorionak irabazleari.



Berrehun lagun inguruk ospatu zuten elkarrekin aurten 50 urte bete dituztela

Urte berean jaiotako eibartarrek antolatzen dituzten bazkariak urriko asteburu- etako *klasiko* bihurtu dira gure herrian, baina arrakastatsuenen artean mende erdira ailegatzeko direnek urtero egiten dutena izaten da. Aurten Sagardo Egunarekin bat egin zuen jaiak eta, eguraldia lagun, primeran ibili ziren 1971. urtean jaiotakoak.



Mihiluze lehiaketarako aplikazioa garatu du CodeSyntaxek

CodeSyntax enpresak Mihiluze aplikazioa edo APP-a garatu du EITBrentzat. Azaldu dutenez, “euskara eta umorea ardatz dituen EiTren Mihiluze lehiaketarentzat bereziki egina dago, eta sariak lortzeko eta taldeak osatzeko aukera dauka”. Bestalde, aplikazioko jokoa saioarekin batera aktibatuko den arren, saioa ikusi gabe ere jokatu ahal izango da, edonondik. Aplikazioan, taldeak osatzeko aukera dago, eta bakoitzaren ebazpenak eta puntuaketak ikusteaz gain, taldeetako rankingak ikusteko aukera ere badago, ranking orokorrak gain. Appa deskarga daiteke jada IOS eta Android gailuetan, App Store eta Google Play dendetan.



Eskualdeko gaztagileek azoka egingo dute bihar goizean Untzaga plazan

Debabarreneko gaztagileek Gazta Azoka egingo dute bihar, 10:00etatik 14:00etara, Untzagan. Azoka Eibarko Udalak eta Debemen Debabarreneko Landa Garapen Elkarteak antolatu dute, “Debabarreneko artzaintza eta gure artzainek burutzen duten lana eza-gutzera emateko asmoz”. Gure eskualdeko gaztagileek hartuko dute parte: Eibarko Sosola baserria (ardi gazta ekologikoa eta ogi

ekologikoa), Mutrikuko Goienetxe baserria (ardi gazta), Soralueko Egotza baserria (ahuntz gazta) eta Mallabiko Mallegoi baserria (Axeliku behi gazta). Horrez gain, Elgoibarko Lizagasar baserritik sagar zukua eta sagardoa eramango dute. Antolatzaileek esan dutenez, “eskualdeko baserritar gaztagileak ezagutzeko eta gazta erosteko aukera ezin hobea egongo da”. Argazkia: BARREN.

FUNEUSKADI
Funerariak

TANATORIO EIBAR

FUNERARIA MUGICA
Funerariak

TANATORIO CREATORIO ELGOIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

<p>Eibar: Otaola, 27</p> <p>Eibarko bulegoa: Bidebarnista, 20</p>	<p>Elgoibar: Xaillon, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p> <p>Ernuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16</p>
---	---

Eibar · Elgoibar · Ernuak · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao · Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

Julian Azkarraga Fuldain

2023/10/13

ESKERRIK ASKO
une latz hauetan gurekin
egon zareten lagun eta
famiako guztioi.

- ETXEKOAK -



‘Ni prest nago, eta Gipuzkoa?’ kanpaina jarri du martxan Atzegi elkarteak

Adimen desgaitasuna duten pertsonen enplegu publikoko plazak eskuratzeko duten eskubidea aldarrikatu nahi du Atzegi elkarteak ‘Ni prest nago, eta Gipuzkoa?’ izeneko sentsibilizazio-kanpainarekin. “Horrez gain, kanpainaren helburua kolektiboarentzat egokitutako deialdiak gero eta administrazio gehiagok eskaintzea da”, elkartearen berbetan. Aste honetan Txolarten egindako prentsaurrekoan adierazi zutenenez, “gizartearen gehiengoak ez daki legez enplegu publikoko plazaren %2 adimen desgaitasuna duten pertsonentzat gordeta egon beharko liratekeela”. Zentzu horretan, Jon Iraola alkateak aitortu zuen administrazio publikoak pauso asko eman behar dituela oraindik. “Beti ez dira portzentajeak betetzen”, bere hitzetan. Deialdiak egokitzeko ahalegina egiten duten erakundeak gutxi dira aipatu zuten, baina azken ur-

teotan gauzak aldatzen ari direla eta administrazio batzuk eskubide hori egi bihurtzen ari direla. Horren adibide dira azken urtean egin ziren bi oposaketa deialdiak. “Oso erantzun ona jaso zuten”, Atzegi-koen berbetan.

Lucia Juarez eibartarrak oposaketa deialdietan parte hartu zuen eta bai berak bai bere amak esperientziaren berri eman zuten: “Oso gustora etortzen nintzen Txolartera oposaketak prestatzera”. Amaren berbetan, “Lucia ilusioz beteta ikusi nuen. Konpetentzia handia zegoen, baina biderei eman nahiko nioke garrantzia”. Oposaketan hiru plaza bete behar ziren eta “zaila zen plaza lortzea”, aipatu zutenenez, baina azterketa teorikoa gainditu zutenen portzentajea altua izan zen. Hori egiteko aukera da, hain zuzen, Atzegitik eta adimen desgaitasuna dutenek eta euren familiek aldarrikatzen dutena.

%50eko kontratazio-konpromisoa duen soldadura TIG ikastaroa

Urriaren 31n aurreko edizioetan hain harrera eta emaitza onak izan dituen Soldadura TIG ikastaroaren edizio berri bati hasiera emango zaio, Armeria Eskola Elkartearen eskutik. Laugarren edizio honetan, ikastaroa amaitzen dutenen erdia, gutxienez, sei hilabetez eta lanaldi osoan kontratatzeko konpromisoa hartu dute hiru enpresa hauek: Fagor Industrial, S. Coop. (Oñati), Ulma Packaging, S. Coop. (Legazpi) eta Ormazabal y CIA, S.L.U (Igorre). Antolatzaileek azaldu dutenez, edizio honetan Lanbidekin finantzaturako Profesionaltasun Ziurtagiri osoa (FMEC0110 Elektrodoz estalizko eta TIG bidetako soldadura) eskainiko da. Ikastaroak sei hilabeteko iraupena izango du (640 ordu) eta goizeko 08:00etatik 14:30era emango da. Profesionaltasun-ziurtagiri honek, epe labur batean, soldaduraren esparruan gaitasunak eskuratzeko aukera emango die parte-hartzaileei. Aipatutako kontratazio konpromisoaz gain, ikasleek 80 eta 200 ordu bitarteko praktikak egiteko aukera izango dute. Izena emateko azken eguna gaur da (interesatuak izen-ematea 615775556 telefonoaren bitartez egin dezakete).





Hamahiru taberna lehiatuko dira datorren astean izango den Eibarko XIX. Pintxo Lehiaketan

Arrate Kultur Elkarteak urtero antolatzen duen pintxo lehiaketa urriaren 25ean eta 26an egingo da, inoiz baino lehenago. San Andres jaietako aurrekaria den lehiaketa hori oraingoan hilabete bat aurreratu da eta, azaroan izan beharrean, urrian egingo da, neguko ordutegiari aurrea hartuz. Guztira 13 tabernak hartuko dute parte edizio honetan, iaz izan zen kopuru bera, eta herri-tarrek, ohikoa denez, bi egun izango dituzte dastatu eta euren iritzia emateko. Lehiaketan parte hartzen duten bezeroen artean, hor ere urterokoari jarraituz, sari baten zozketa egingo da. Eibarko tabernarien arteko "San Andres Sari" horretan honakoak izango dira parte-hartzaileak: Azkena, Amesti, Koskor, Birjiñape Berria, Kultu, Kontent, Slow, Baratzte Gourmet, EzDok ZaiZoi, Chido, Bulebú, Trinkete eta Untzaga Gizar-te Etxeko kafetegia.

Tripontziak ekimenaren hamargarren urteurrena ospatuko da azaroan

Azaroaren 3tik 26ra, Debarrena eskualdeak Tripontziak ekimen gastronomikoaren hamargarren urteurrena ospatuko du, Debege-sa Garapen Agentziak eta Debarreneko Klub Gastronomikoak antolatuta. Hamargarren edizio honi hasiera berezia eman nahi izan diote antolatzaileek eta, horretarako eguaztenez dastaketa bat egin zen Errebal Plazan. Bertan, ekimenean parte hartuko duten jatetxeko sukaldariak Tripontziak menuko mokadutxo bana prestatu zuten, eta egindako elaborazioak azaldu zituzten. Ardo eta txakoli ekoizleak ere bertan egon ziren, menuekin eskainiko diren edarien inguruko xehetasunak ematen. Eibarko Baratzte Gourmet, Elgoibar-

ko Belaustegi, Ermuko Mendiola, Mutrikuko Pikua eta Soralezeko Txurruka jatetxeek hartuko dute parte aurtengo edizioan eta sasoko eta tokiko produktuetan oinarritutako platerak prestatuko dituzte. Menuak 35 eurokoak dira eta barne hartzen dute aperitibo bat, sarrera, bi plater nagusi (haragia eta arraina) ditu Mendaroko txokolatearekin egindako postrea. Ogia, kafea eta ardoa menuan sartzen dira baita eta aurrean, berrikuntza gisa, jatetxe guztiek ardo berdina eskainiko dute menurekin: Garcia Olano upeltegiko ardo zuria eta Aimarez upeltegiko ardo beltza. Jatetxe bakoitzak eskainiko duen menua debarrenaturismo.com webgunean kontsultatu daiteke.





JESUS GUTIERREZ

Nire egunsentiko heroiak

Adin batera heldu arte ez dugu jakiten ondo zertan egiten duten lan gure gurasoek. Seme-alabok badakigu tailerrera, bulegora, klaseak ematera... doazela, baina ezer gutxi gehiago. Uste dut, kasu gehienetan behintzat, argituko bagenie gure lana zelakoa den, gure seme-alabak ikasle hobeagoak izango liratekeela, guk pasatzen ditugunak eurek ez pasatzeko.

Seme-alabek jakin beharko lukete nahitanahiez zelakoa den egun arrunt bat gure lanean, baina ez diegu halakorik argitzen; hor jokoan sartzen dira ikasi duzun esparruan lan egiten duzun, zelako soldata jasotzen duzun, lanak betetzen zaituen, edo uneoro erlojuari begira zauden ahal duzunean arinetan irteteko... Arazoa da egunero, bat bera ere kendu gabe, gosaltzen dugula, baita bazkaldu eta afaldu ere, hipoteka ordaindu behar dugula, bizitza sozialari eutsi, eskola ordaindu, eta baita argia, ura eta komunitateko fakturak ere, oporretan joatea gustatzen zaigu... Etenik ez duen gurpilean gaude sartuta, eta horrek lan egitea eskatzen digu.

Ni oso ume nintzenean ama eta aita nituen idolo bezala. Nire ama etxeko “general” zen, “erosketa-buru”, “catering-buru”, “administrari nagusia”... Kargu guztiak zituen eta dena egiten zuen ondo. Aitak Orbean egiten zuen lan, eta nik txikitan beti kontaktatzen nuen bera zela Zengotitari motorrak egiten zizkiona. Azken hori apaiza zen, Velosolex batekin Eibartik ibiltzen zena; bide batez esango dut marka hori Orbeak fabrikatzen zuela bere Urkizuko instalazioetan. Niretzat nire gurasoak gorena ziren. Orain dela gutxi, ikerketa lan batean jakin izan nuen bai, nire aitak Orbean egiten zuela lan, baina fundizioan, Urkizuko dorreen atzeko aldean dagoen tunela pasatuta zegoen tokian, eta bere funtzioa koladatik piezak ateratzea zela.

Aurreko belaualdietakoekin konparatzen garenean, gure buruak hain azkartzak jotzen ditugun sasoi honetan, uste dut ez dela hainbesterako. Lanegun guzti-guztietan nire iratzargailuak seiretan jotzen duelako; eta, hori gertatzen bada, izan daiteke uste nuen bezain listoa ez naizelako akaso. Eta nire gurasoekin akordatzen naiz, mirespenaz: nire egunsentiko heroiak.

“Seme-alabek jakin beharko lukete nahitanahiez zelakoa den egun arrunt bat gure lanean, baina ez diegu halakorik argitzen”

 **Neinor** HOMES

ARRATE HOMES • EIBAR

AUPA EIBAR



Zatoz pisu pilotua ikustera

Gimnasioa • Gourmet aretoa • Garajea • Trastelekua

900 11 00 22 • neinorhomes.com



**DEBABARRENEKO
GAZTA AZOKA**

UNTZAGA PLAZAN

urriak 21

ZAPATUA

10:00 - 14:30

Sosola
(Eibar)

**ARDI GAZTA
EKOLOGIKOA**

Egotza
(Soraluze)

AHUNTZ GAZTA

Goienetxe
(Mutriku)

ARDI GAZTA

Mallegoi
(Mallabia)

**AXELEKU
BEHI GAZTA**

Lizagasar
(Elgoibar)

**SAGAR ZUKUA
ETA SAGARDOA**



BERBETAN, euskaraz jardutea denon eskura



Inoiz ez da hain erraza izan euskara praktikatzea; horretarako aukerak ere ugartuz joan dira azkeneko urteetan gure herrian. Eskuartean duzuen aldizkari honetan bertan duzue horren adibide. Badira hogeita bi urte ...eta kitto! Euskara Elkartek Berbetan mintzapraktikako programa martxan jarri zuela. Orduz geroztik, berbalagun kopurua etengabe hazten joan da, baina ez hori bakarrik. Profil eta premia ezberdinetara egokitutako bi aldaera ere baditu Berbetanek: Gurasoak Berbetan seme-alaba txikiak dituzten gurasoei zuzendutakoa eta Ongietorri harrera eta elkarbizitzarako programa. Martxan dira jada hirurak, baina edozein momentutan eman daiteke izena.



Ahozko euskara maila hobetu nahi dutenei topaleku ederra eskaintzen die Berbetanek; giro lasai eta informalak lagunduta, euskaraz lasai berba egiteko aukera ezin hobea, lotsak eta konplexuak alde batera lagata. ...eta kitto!tik diotenez," programan parte hartzeko arrazoiak hainbat izan daitezke: euskaltegian ikasitakoa praktikan jartzea, inguru hurbilean euskaraz berba egiteko inor ez edukitzea, erdi ahaztuta dagoen hizkuntza berreskuratzea, azterketarako prestatzea, lagun euskaldunak egitea, giro euskaldunean murgiltzea...".

Astean behin, ordubete

Euskaraz hitz egiteko ohitura dutenak euskaraz hitz egiteko ohiturarik ez dutenekin elkartzen dira, astean behin ordubete. "Behar eta ahalmenaren arabera taldeak ditugu, astelehenetik ostiralera goizez zein arratsalde. Berbalagunari ondo dator kion egun, ordu eta tokian. Modu horretan errazagoa eta erosoagoa da parte-hartzea, guztion beharretara egokitzen saiatzen gara-eta". Mintzapraktikako taldeez gain, hainbat

ekintza osagarri ere eskaintzen dira urtean zehar: "Azaroan, adibidez, Bergarara joango gara, bisita gidatua egin eta bertan bazkalduko dugu. Talde ezberdinetako berbalagunak elkar ezagutzeko aukera polita da".

Euskaldunak ere beharrezko

Berbalagun-taldeetan euskara praktikatzeko premia dutenak euskaraz ondo moldatzen diren euskaldunekin elkartzen dira. "Azken horien presentzia taldeetan oso laguna-



rria da, segurtasuna eta konfiantza ematen baitiete euskara praktikatzera datozenei. Baina taldeetan parte hartzeko ez da derrigorrezkoa alfabetatua izatea, euskaraz ondo moldatzearekin nahikoa da”. Kasu honetan ere parte hartzeko arrazoiak hainbat izan daitezke. “Euskararen normalizazioan euren ekarpena egitea, euskaraz aritzeko zailtasunak dituztenei laguntzea, lagun berriak egitea...”.



GURASOAK **B**ERBETAN

2010ean jaio zen Berbetan programatik, “familia-giroa euskalduntzeko helburuarekin”. Izan ere, elkartetik dioten moduan, “gurasoak eredu dira seme-alabentzat, baita hizkuntzarekiko dugun jarreran ere. Esparru estrategikoa osatzen du familiak euskararen transmisioan eta, hori aintzat harturik sortu genuen orain dela hamahiru urte gurasoentzat aldaera hau”. Haur Hezkuntzako (2-5 urte) eta Lehen Hezkuntzako lehen eta bigarren mailako (6-8 urte) haurren familiek har dezakete parte.

Familia-giroa euskaldundu

Etxekoen artean euskara gehiago erabili eta bertoko giroa euskaldundu nahi duten familientzat pentsatuta dago egitasmo hau: “Etxeko hizkuntza ohituretan eta transmisioan eragiteko aldaera da, euskaraz berba egiteko ohitura berreskuratu nahi duten gurasoentzat, euren euskara hobetu nahi dutenentzat, hizkuntza hobetzeko premia duenari lagundu nahi duenentzat...”.



Mintzapraktika talde naturaletan

Mintzapraktikako taldeak Berbetan programaren baitan biltzen badira ere, Gurasoak Berbetan ekimenak eskaintzen du mintzapraktika beste era batera egiteko aukera. “Jakitun gara seme-alaba txikiak ditugunean zailagoa egiten zaigula astero ordutxo bat hartzea; hori dela-eta, mintzapraktika talde naturaletan egiteko aukera eskaintzen diegu gurasoei, hau da, kuadrillan, eskola inguruan edo parkean elkartzen diren taldeetan... Tarte bat eskaintzea euskarari, azken batean”. Izena familia bakar moduan emateaz gain, kuadrilla edo lagun-talde moduan ere eman daiteke.

Ekintza osagarriak

Urtean zehar ...eta kitto!-k antolatzen dituen ekintza osagarrien bultzatan elkartu ohi dira familia gehienak. “Urtea amaitu aurretik hiru ekintza ditugu aurreikusita: Gaba Beltzaren inguruan gaileta-tailerra egingo dugu, urriaren amaieran Donostiako Aquariumera goaz eta abenduan Mari Domingi eta Olenzteroren etxera, Mirandaolara”.

Barixakuak Jolasian gaur hasiko da

Txaltxa Zelaik hartuko ditu gaur 2 eta 8 urte bitarteko umeentzat jolasak 17:00etatik 18:00etara. Hurrengo barixakuan, urriak 27, Torrekuan egingo dira jolasak eta azaroaren 3an Urkizuko parkean.

ONGI ETORRI **B**ERBETAN

Bi urteko etenaldiaren ondoren, iazko ikasturtean heldu zion berriro ...eta kitto!-k Ongietorri programari. Harrera eta elkarbizitarako programa da eta euskarara eta euskal kulturara gerturatzea eta jatorri ezberdinetako bizilagunak elkar ezagutzeko helburu. Horretarako, “kultur eta jatorri ezberdinetako pertsonak elkartzen ditugu, herriko auzoetan, ordu eta erdiko saioetan, astean behin”.

Egitasmoa nola eta zergatik sortu zen galderari erantzunez, elkartetik diote “euskara ezer ere ez zekiten lagun asko hurbiltzen zitzaizkigun elkartera euskaraz berba egiten ikasi nahi zutela esanez. Euskara ikasten hasi aurretik, baina, euskarara, euskal kulturara eta Eibarko errealitatera gerturatzea garrantzitsua dela uste dugu, behin pauso hori emanda errazagoa izango da eta euskara ikastera animatzea”.

Taldeak auzoetan

Egitasmoak herriko lau auzotan eskaintzen ditu taldeak, seme-alabak eskolan dauden ordutegian: “Astearteetan Ipurua aldekoak EPA edo HHI-n (Helduen Hezkuntza Iraunkorra) elkartzen dira 14:30etik 16:00etara; asteazkenetan Amañako eskolan ordutegi berean; eta oste-



gunetan bi talde ditugu, goizez bata, ...eta kitto!-n, 10:30etik 12:00etara, eta arratsaldez bestea, Arrateko Andra Mari eskolan, 14:30etik 16:00etara”.

Saio praktikoak, giro informalean

Talde txikiak dira, jatorri eta kultura ezberdinetako lagunez osatutakoak, eta saioak ...eta kitto!-ko teknikari batek dinamizatzen ditu: “Giro lasaiean jarduten dugu

eta gai ezberdinak lantzen ditugu, oso modu praktikoan”. Gainerako egitasmoek bezala Ongietorri ere ekintza osagarrietan parte hartzeko aukera eskaintzen die partaideei: “Eurentzat propio antolatzen ditugu ekintza batzuk, baina Gurasoak Berbetaneko familiekin batera ere antolatzen ditugu beste asko, modu polita izaten baita herritarren arteko harremanak sendotu eta sarea osatzeko”.

Ekimenean parte hartzeko

BERBETAN eta GURASOAK BERBETAN

elkartea@etakitto.eus / 943 200918

ONGIETORRI

ongietorri@etakitto.eus / 943 200918

“Nahiz eta zulo bat izan, Eibarrek eraikin industrial on asko egin zituen”

JOSEBA ARANZABAL • Arkitektoa



Eibar eta industria berbak nahitaez elkarri lotuta joan dira urte askoan eta, iraganeko tailer-hiri hartatik oso gutxi, apenas ez den ezer geratzen. Hala ere, arretaz begiratzen jakinez gero, gure herria izan zena gogoratzen diguten aztarna gutxi batzuk gaur arte bizirautea lortu dutela konturatuko ginateke. Urrea balio arren, distirarik egiten ez duten altxorrak.

Urriaren 2a Arkitekturaren Nazioarteko Eguna dela eta, horren aitzakiarekin, Arragueta kaleko 20. zenbakian dagoen Beistegui Hermanos (BH) eraikina aintzates-teko ekitaldia egin zen, Euskal Herriko Arkitektoen Elkargoarekin (EHAEO Gipuzkoa) batera aritu den Docomomo Iberico fundazioaren ekimenez. Bide batez, eraikina jaso zuen Ramon Martiarena Laskurain arkitektoari omenaldia egin zitzaion, berak proiektatu eta jaso zuen eraikinaren sarreran bere oroimenezko plaka jarrita.

Nondik sortu da Eibarko eraikin honi errekonozimendua egiteko ekimena?

Urtero egiten zaio omenaldi bat eraikin berezi bati, Gipuzkoa mailan, eta aurten lehen aldiz Eibarko eraikin bat aukeratu da. Orain arte Eibarrek ez zuen horrelako errekonozimendurik, eta Euskal Arkitektoen Elkargoaren bitartez erabaki da plaka zein eraikini eman. Errekonozimendu bat da, ez da katalogazio bat, eta urtean behin egiten da, arkitekturaren mundu mailako eguna aprobetxatuz.

Beste herri batzuetan egin diren errekonozimenduk ere eraikin industrialetan izan dira, Eibarren bezala?

Normalean ez dauka zertan izan industriari lotutako eraikina izan, baina azken urteetan gehienetan hala izan da; adibidez Pasaian, Luzuriaga eraikinarekin, Tolosan ere beste eraikin patrimonial industrial bati eman zitzaion... eta, aurten ere, industriari lotuta zegoen eraikin bati ematea erabaki da, nahiz eta gaur egun etxebizitzak izan.

Arkitektoen Elkargoarekin batera, Docomomo izeneko fundazioak bultzatu du ekimena. Azalduko diguzu zer den Docomomo?

Errekonozimendua bi elkargok ematen dute. Batetik Arkitektoen Elkargoa, hau da, COAM dago, Euskadi mailako elkargoa da eta hiru probintzietan dago, baita Nafarroan ere. Eta beste erakunde oso garrantzitsua Docomomo izeneko da. Mundu mailako erakunde bat da, eta eraikinak aukeratzen joaten da, nolabait zaindu eta babesteko. Estatu mailan, Docomomo Iberico deitzen dena daukagu. Ingeleseko siglak dira, baina gutxi gorabehera "Defensa del Movimiento Moderno del Patrimonio Industrial" esan nahi du, gure artean tradizioa izan duten eraikin izendagarriak gorai-patzea, alegia.

Errekonozimendua jaso duen eraikin honek zein berezitasun dauka, horrelako aitortza merezi izateko?



BH eraikina eta hori proiektatu eta jaso zuen arkitektoa, Ramon Martiarena Laskurain gogoratzeko plaka, Arragueta kaleko 20. zenbakiaren ate aldamenean ipini dute. Ekitaldian, besteak beste, Arkitektoen Elkargoko ordezkariak egon ziren, tartean Joseba Aranzabal eibartarra (argazkian lehena eskumatik hasita). SILBIA HERNANDEZ

Zehazki, eraikin hau Beistegui Hermanos da, bizikletak egiten zituen etxearen bigarren eraikina. Lehen eraikina aldamenean daukagu, oraindik zutik dago, zorionez, eta beste hau BH-k Eibarren egin zuen bigarren eraikina da. 1951. urtekoa da, hormigoiz egina dago guztiz, hormigoiz armatuz, hormigoia eta altzairua dauzka, eta kuriositate modura esan behar da oso ondo kokatuta dagoela. Nahiko leku txarrean dago, kale biren artean eta, gainera, errearen gainean. Orduan eraikin hau proiektatu eta diseinatu zuen arkitektoak, Ramon Martiarena gipuzkoarrak, eraikin honi zein forma eman erabaki behar izan zuen. Egin zuena izan zen Bittor Sarasketa kaleak duen lerrokadari jarraitu, eta presentzia handia daukan eraikin berri bat egin.

Etxean jarritako plakan, eraikinarekin batera, hori egin zuen arkitektoa ere izan duzue gogoan. Nor izan zen Ramon Martiarena?

Ekitaldira bere familiakoak gonbidatu ditugu, gehienbat errekonozimendua ere bere figurari egiteko. Ramon Martiarena Zumaian jaio eta Donostian hil zen arkitektoa izan zen. Madrilen egin zituen arkitektura

“Jendea kontzientziatu egin behar da, sasoi batean eraikitako patrimonioa babesten saiatu behar dela konturatzeko”

ikasketak eta, gazte-gaztetikan, karrera amaitu eta berehala hasi zen beharrean, Sorian, udaletxean, herriko arkitekto moduan. Sasoi hartan, nahiz eta herriko arkitektoa izan Sorian, enkargu pribatuak edo partikularrak ere egiten zituen. Gaur egun ez da horrelakorik baimentzen, baina sasoi hartan posible zen. Sorian egindako lana itzela izan zen. Bertako arkitektoekin, Diputazioarekin, Udalarekin... berbetan aritu gara, eta han lan handia egin zuen. Kuriositate gisa, Sorian igogailua eduki zuen lehen eraikina berak proiektatu eta jaso zuen, eta horrelako adibide gehiago daude. Kafetegi oso moderno bat ere badauka, Alameda, baita

Elkarrizketa eta ekitaldiaren
bideoa gure YouTube
kanalean ikusgai



garaje-kotxera bat ere, kamioi eta autobusentzat. Sorriako herrian fama handia hartu zuen arkitektoa izan zen. Gero, hango lana laga eta Gipuzkoara etorri zen, 'Regiones Devastadas' esaten den horretatik deitu ziotelako, OSH-tik ('Obra Sindical del Hogar'). Eibar Gerra Zibilean suntsitu zutenaz, tamalez, berak egin zuena izan zen, planeamendu baten bitartez, herria berriz jaso. Berreraikuntza horren parte-hartzaile izan zen. Horrez gain, badauzka eraikin gehiago, hau ez da bakarra, eta neri gehien gustatzen zaizkidanetako bat Arane kalean dagoen bat da, gaur egun Industrias Pampo dena. Sasoi batean hor giltzak eta sarraailak egiten zituen Ojmar-ek. Kuriosidade modura, Azitainen dagoen gasolindegia ere berea da. Juan Antonio Mogleko etxeak, lehen Carlos Larrañaga deitzen zen auzoan etxe pila bat egin zituen...

Sasoi batean Eibar tailerrez beteta egon zen. Eraikin industrial asko eraitsi edo hondatu arren, balio arkitektoniko berezia duen beste eraikinik garatzen da herrian?

Bai. Kasu hau konkretua da, gu bailara batean bizi gara eta onartu behar da hemen dugun orografia ez dela onenatarikoa. Baina, nahiz eta zulo bat izan, Eibarrek eraikin industrial on asko egin zituen. Tamalez, eta horrekin ni ez nago ados, suntsitu egin dira, beste gauza batzuk egiteko. Baina, kasu honetan, norbaitek pentsatu du bigarren aukera bat ematea eraikinari, industrial kutsua kendu eta, beste kalifikazio baten bitartez, bigarren bizitza ematea. Eibarren badaude horrelako beste adibide batzuk: Portalea bera, Aurrera fundizioa, edo Ertzaintzaren etxea dena, Lambretta zena, adibidez. Kasu honetan, eraikin hau residentziala izatera pasatu da eta, horri esker, zutunik dago. Bestela, seguruenik hau deuseztatuta egongo litzateke.

Eta zeuk, arkitekto modura, nola ikusten duzu ondare industrialia izandakoa desagertzen joatea?

Nire ustez, lan gehiago egin behar da, bai Udalean, bai herri mailan. Jendea kontzientziatu egin behar da, sasoi batean eraikitako patrimonioa babesten saiatu behar dela konturatzen. Modu horretara, atzetik datozen belaunaldiak konturatuko dira zer izan ginen. Herri-



“Gerra Zibilean Eibar suntsitu zutenaz, herria berriz jasotzeko lanean aritu zen Ramon Martiarena arkitektoa, planeamendu baten bitartez. Eibarko eraikin asko berak proiektatu eta egindakoak dira ”

kutsua eduki, eta jakin Eibarren, industria mailan, lan handia egin zela, bizikletak, josteko makinak, sakakortxosak, grapadorak eta gainontzeko beste gauza guztiak egiten. Eta eraikin horiek, modu batean edo bestean, zaindu eta kontserbatzeko saiakera egin beharko litzatekeela. Izana izateko, eta biharko egunean izan ginenaz harro egoteko.

“Esaten dugunaren eta esaten ez dugunaren inguruan hausnartzeak erakartzen nau”

OLATZ MITXELENA • Idazlea



Udal liburutegiak eta ...eta kitto!-k elkarlanean antolatzen duten Harixa Emoten euskarazko irakurketa klubak joan den astean ekin zion ikasturteari, eta lehenengo saioko gonbidatua Olatz Mitxelena (Oiartzun, 1989) izan da. 2021ean irabazi zuen Igartza Sariaren laguntzarekin idatzi du oiartzuarrak “Arrain hezur bat eztarrian”, estilo desberdinetan idatzitako hamar ipuin labur biltzen dituen liburua, eta horren inguruan jardun zuten Ainhoa Aldazabalek gidatutako saioan.

Zer eratako ipuinak aurkituko ditu irakurleak?

Ipuin laburrak dira; hori da, beharbada, partekatzen duten ezaugarri nagusia. Gainerakoan, ezberdinak dira forma zein estilo aldetik: badira fantasiara jotzen duten ipuinak eta badira kutsu errealistagoa dutenak ere. Ahots bat baino gehiago biltzen dituzte ipuin batzuek; giro aldetik ere ezberdinak dira: ikasle talde bat agertzen da ipuin batean, bi emakume zahar agertzen dira beste batean... Hein batean, ikuspegia ireki nahi nuen, ipuinen abanikoa zabaldu, probatu. Ezberdintasunak ezberdintasun eta luze-laburrak gorabehera, bada, dena den, ipuinak biltzen dituen beste ezaugarri bat: halako giro bat errepikatzen da ipuin bat baino gehiagotan, ezinegona transmititzen duena, zikina, kirasduna. Eta gaiak ere ezberdinak izanagatik, isiltasunak edo esaten ez denak egiten du oihartzun ipuinez ipuin.

Zergatik narrazioa eta ez eleberria?

Ipuinak gustatzen zaizkit, bai irakurtzeko eta baita idazteko ere. Julio Cortazarri irakurri nion ipuinak argazkien tankerakoak direla; eleberriak, filmen tankerakoak. Errealitatea adierazteko bi modu dira. Niri gustatzen zait ipuinen laburtasuna, giro bat sortzea, pertsonaia bat edo bi erakustea...

Hasieratik ziren hamar? Nolako izan da idazketa-prozesua?



Hasieran, proiektua Igartza Sarira aurkeztu nuenean, ez nekien zenbat ipuin izango ziren. Ipuinak idatzi nituen; batzuk gehiago gustatu zitzaizkidan, beste batzuk gutxiago. Bukaeran, entregatzeko epea iritsi zenean, argi nuen idatzi nituenetatik onenak atera nahi nituela liburuan. Batzuk liburutik kanpora geratu dira, beraz; eta erdibidean geratu denik ere bada, Xabier Mendi-guren editoreak edo nik ez geniolako ikusten funtzionatzan zuenik. Orokorrean, ikasketa prozesua izan da idazketa: ipuinak idatzi ahala asko ikasi dut.

“Arrakalak” zuen izena proiektuak lehiaketara aurkeztu zenuenean. Nondik dator izenburu berria?

Hasierako izenburuak zauriari edo minari egiten zion erreferentzia: kontatu nahi nituelako gizakion arteko harremanetan edo geure baitan sortzen diren minak, deserosotasun horiek, aitortzea kostatzen zaizkigun horiek. Horiek badaude ipuinetan, baina idatzi ahala konturatu nintzen bazela min edo zauri bat behin eta berriz agertzen zena. “Arrakalak” orokorregia iruditu zitzaidan orduan, eta izenburu zehatzago bat nahi nuen, ipuinetan gertatzen zena hobeto jasotzen zuena. Hala sortu zen “Arrain hezur bat eztarrian”.

Izenburuak badu lotura, hain justu, ipuinak lotzen dituen ardatzarekin, ezta? Esangabekoak, esanezina, ixiltasuna...

Bai. Esan bezala, ezberdintasunak ezberdintasun, ipuinetan behin baino gehiagotan agertzen da isiltasuna: pertsonaiek ez dutelako esaten pentsatzen duten hori, ez direlako ausartzen esan nahi duten hori esatera, edo zail egiten zaielako parekoarekin komunikatzea. Oso interesgarria iruditzen zait komunikazioaren gai hori; mirari bat, ia. Erakartzen nau esaten dugunaren eta esaten ez dugunaren inguruan hausnartzeak, zer eta nola esaten dugun pentsatzeak.

Fantasia eta errerealismoa, biak uztartu dituzu...

Biak gustatzen zaizkit. Interesatzen zait, alde batetik, literaturaren jolasa, hizkuntzarena, munduaren logikatik pixka bat ateratzea; eta interesatzen zait, era berean, pertsonaien ñabardura psikologikoetan sartzeta eta eguneroko bizitzari begira jartzea. Ez da kalkulaturako zerbaite izan, hala ere: ez dut pentsatu “ipuin hau errealista egingo dut eta bestea fantastikoa”. Batzuetan bata atera zait eta besteetan bestea.

... eta umorerik ere ez da falta

Hori ere gustu kontua da. Niri, irakurtzean, gustatzen zait tarteka irribarre bat egitea, ironiak sumatzea. Egia da, era berean, idaztean, uste baino gehiagotan atera zaidala. Gustura sentitu naiz umorea egiten. Ongi pasa dut. Bestalde, interesgarria iruditzen zait gai eta kontu mingotsagoak direnean ere umoreari tartea egitea. Ezer



"Igartza saria idazten jartzeko bultzada ezinbestekoa izan da"

ez delako zuria ala beltza: mina sentitzen ari garenean ere sentitu dezakegulako poza, errealtatea ilun samar jartzen zaigunean ere egiten dugulako barre.

Igartza Saria irabaztea, liburua idazteko aukera izateaz gain, zer izan da zuretzat?

Idazten jartzeko bultzada ezinbestekoa izan da. Lehen ukatu ez, baina nire buruari ez nion aitortzen idazten jar nintekeenik. Idazten nuen tarteka: ideia bat, paragrafo bat, testu laburren bat; baina ez nintzen jartzen serio, lan modura hartuta, idazten. Sariak lagundu dit nire buruari baimen hori ematen: boligrafoa hartu eta koadernoaren aurrean orduak pasatzen.

Lehen liburua argitaratuta duzu, bigarrenik buruan? Hala bada, ipuinen bidetik jarraituko duzu?

Jarraitu nahi nuke nire buruari idazteko baimen hori ematen. Oso gustura sentitu naiz. Gozatu, eta sufritu, egin dut; terapeutikoa ere izan da, neurri batean; bide eder bat zabaldu zait pentsatzeko, gauzak beste modu batera esateko, zenbait kontu esateko... Nire burua ipuinen neurrian irudikatzen dut aurrera begira ere; hori bai. **Zer iruditzen zaizkizu Harixa Emoten bezalako literatura-tertuliak?**

Luxu bat. Ederra da irakurleak aurrez aurre edukitzea, zure ipuin, pertsonaia eta gaiak buruz adi-adi entzuten ikustea, galderak eta iruzkinak entzutea, beste irakurketa eta interpretazio batzuk egin daitezkeela konturatzea...

Gutxiago geratzen da 29. Sagardo Egunerako

Giro ezinhobean (beroezi akaso?) ospatu genuen 28. Sagardo Eguna Eibarren. Urterokoari jarraituz, Untzaga plaza lepo betetzera iritsi ginen berriro, nahiz eta jendea eguzkitik ihesi ibili artaldeak bezala, zuhaitzen anparoaren bila. 13 sagardogilek ekarritako sagardoa ondo baino hobeto egokitu zitzairen egarri ziren eztarriei, jakinda gainera txorizo eta gazta pintxoek eskaintzen zuten maridajea ez zela nolana hikoia. Izan zen ingelesez "sandwich"-erako tiketa eskatu zuena ere. Gure eskerrik beroenak lanean gogor jardun zuen talde zoragarriari, herriko ostalariei (berezi Guridi eta Kontent tabernei), Jose Luis Fernandezek "El Cantón de la Avenida"-ri, Bolintxo okindegiari, Oiantzungo Beko Etxeko lagunei eta, nola ez, aurten omendua izan zen Marisol Arrillagari eta bere soinu-joleei. Urte osoan Untzagan euskarazko solas gehien hartu zuen egunak hurrengorako hitzordua laga zigun. Ordura arte, ez galdu ohitura!

ARGAZKIAK



BIDEOA





“Gidetan eta bideoetan ez dira antzematen altuerak eragindako zailtasun guztiak”

FERNANDO ERREKALDE • Alpinista



Irailaren 27ko egunsentia 8.163 metroko altueran bizi izan zuen Fernando Errekalde alpinista eta mendikogida eibartarrak. Hain zuzen ere, Manaslu mendiaren tontorrean, Himalaian. Munduko zortzigarren mendirik altuena da eta, bertan, Errekalde zortzimilako bat igotzen duen lehen eibartarra bilakatu zen.

Manaslura igo ahal izateko, 50 egun egin ditu etxetik kanpo Fernando Errekaldek. Orain dela egun gutxi itzuli da etxera, Jaca (Huesca) ingurura, eta handik erantzun die gure galderei, poz-pozik, bizitzako ametsa egi bihurtu ondoren.

Nola ikusten da mundua 8.163 metroko altueratik?

Ba, ez da gauza asko ikusten. Tontorrera heltzen zarenean zure munduan murgilduta zaude eta ez duzu asko ikusten, baina oso polita izan zen. Egunsentian heldu ginen eta tontorrak ematen duen itzala ikusi genuen. Ikusgarria. Gauza harrigarri bat izan zen lurraren kurbadura ikusten dela. Ordura arte, ez nuen sekula ikusi. Tontorretan beti ikusten ditut beste mendi pila bat, baina zuzen. Manaslutik, ordea, kurbadura atzematen da.

Zuretzat zer izan da zortzimilako bat igotzea?

Ikaragarria. Denbora askoan buruan izan dudana helburua izan da. Beti eduki dut buruan egunen batean horrelako mendi handi bat igotzea eta askotan saiatu naiz. Zortzimilako bat igotzeko lehen saiakera izan da hau, baina 6.000 eta 7.000 metroko mendietan askotan saiatu ondoren, zortzimilako bat egiteko sasoia iritsi da. Baina ez pentsa, 20 urte inguru pasa dira helburua ezarri nuenetik.

Lehenengo saiakeran helburua lortzea ez da, ba, erraza izango.

Kontua da den-dena perfektu irten dela. Oso zorte ona eduki dugu. Beste batzuetan, 6.000 edo 7.000 metroko mendiak igotzen saiatu garenean, gehienetan ezin izan dugu tontorrera igo. Hori da normalena, baina saiatu behar zara, errepikatu egin behar duzu eta, begira, oraingoan lehenengo saiakeran irten da.

Faktore asko eduki behar dira kontuan?

Hori da. 21 egun egon gara mendian eta egun horietan pila bat gauza gerta daitezke: zuri, zure lagunari, elikaduran, mendian... Den-dena joan behar da ondo eta hori oso zaila da.

50 egun egon zarete etxetik kanpo Manaslura igotzeko helburua lortzeko. Nola banatu dituzue egun horiek?

Hasteko, Katmandura heldu ginen, Nepaleko hiriburura. 2-3 egun egin genituen han, espedizioan lagundu zigun agentzia bisitatzen eta baimenak eta azken trasteak egiten. Handik mendira hurbiltzen hasi ginen eta, horretarako, 7-8 eguneko trekkinga egin behar izan genuen Manasluren oinarritzko kanpamendura heltzeko. Hori oso ondo dator, poliki-poliki altuerara egokitzeke balio duelako. Trekkinga 800-900 metroko altueran hasten da eta oinarritzko kanpamendua 4.800 metrotara dago. Desnibel handia dago.





Hori egitea ez da gutxi!

Bai, eta horrela egiten du jende askok. Gaur egun, Nepalen trekking asko egiten dira, eta trekking horiek mendi handietara hurbiltzeko erabiltzen diren bideak aprobetxatuz jaio ziren.

Oinarrizko kanpamendura heltzean, zein izan zen zuen jarduna?

Kanpamendura heldu baino lehen, 5.000 metro tara dagoen 'lepo' batetik pasatu ginen eta hori oso ondo etorri zitzaigun altuerara egokitzeko. Orduan bai, kanpamendura iritsi ginen, eta mendian egin beharreko lanak egiten hasi ginen. 21 egun inguru egin genituen han, gora eta behera. Horrela, altuerara egokitzeaz gain, beste kanpamenduak muntatu behar izan genituen. Manaslun lau kanpamendu muntatu behar dira. Bata, 5.800 metroko altueran dago; bigarrena, 6.400 metrotan; hirugarrena, 6.800 metrotan; eta laugarrena, 7.400 metrotan. 21 egun horietan hiru aldiz sartu ginen mendian, altuerara egokitzeko eta kanpamenduak muntatzeko. Azkenengo aldiari gaua 6.800 metrotan pasa genuen eta, gero, gelditzen zitzaigun gauza bakarra zen eguraldi onari itxarotea tontorrera abiatzeko. Tontorrerako igoerak bost egun iraua zituen, 2. 3. eta 4. kanpamenduetatik pasa ondoren. Tontorraren ondoren, 2. kanpamendura jaitsi ginen eta handik oinarritzora.

“Burua oso garrantzitsua da, baina ez bakarrik tontorraren egunean, baizik eta bidaia osoan zehar”

“Dena aurka duzunean, oso erraza da buelta ematea edo oxigenoa hartzea, baina burugorria naiz”

Bidea ez da tontorrean amaitzen, gero jaitsi egin behar da.

Hori da, eta askotan ez da erraza izaten. Jaitsierako bidea nahiko teknikoa zen, rappel asko egin behar zen eta gorputza mugan genuen, oso nekatuta. Akatsak egitea ez da hain zaila. Oso argi ibili behar zara.

Nolako mendia da Manaslu?

Ez da zailena, baina ez da erraza ere. 1. kanpamendura arte glaziar bat zeharkatu behar duzu. Ez du desnibel handia, luzea da, baina arrakala eta serac (izotz bloke handiak) asko daude eta oso arriskutsua da. 2. kanpamendura heltzeko desnibel gutxi dago, 500 metro asko jota, baina oso teknikoa da. Serac-en artean ibili behar zara, izotz pareta asko dago eta sokarekin igo behar zara... Mendiaren azkenengo maldak ez dira oso zailak, zabalak dira, baina 45º ingurukoak. Hau da, ez da oinez joatea bakarrik. Tontorrera heltzen zaren eguna da teknikoki errazena.

Mendiaren puntu bakoitzean zer egin behar zenuten jakiteko, aurretik ondo aztertuta zenuten?

Bai, gaur egun informazio asko dago. Gidetan irakurri dezakezu, baina YouTubean ere bideoak ikusi ditzakezu eta teknikoki nolako gauzak egin behar diren aztertu. Gidetan eta bideoetan ikusten ez dena altuerak sortzen duen zailtasuna da. Hori sentitu egin behar da, eta normalean gauzak asko zailtzen ditu.



Fernando Errekaldek Michel Gonzalezekin, Lhakpa Temba Sherparekin eta Ngawang Rapgay Sherparekin batera igo zuen Manaslura.

Zuk, gainera, ez zenuen oxigenoaren laguntzarik erabili. Nola moldatu zinen?

Espedizioa nirekin egin zuen Michel Gonzalezek 7.800 metrotik gora erabili zuen oxigenoa. Izan ere, egokitze-prozesuan demaseko buruko mina izan zuen eta mendian egin genuen hirugarren irteeran ni baino lehenago jaitzi zen, buruko minarengatik. Egin zuen aklimatazioa ez zen oso ona izan eta zalantzekin igo zen. Ez zekien noraino igoko zen eta, oxigenoa erabiliko bazuen, niri laguntzeko izango zela esan zidan. Azkenean, goraino igo zen. Bion ideia oxigenoa ez erabiltzea izan zen. Nik ez nuen erabili, baina burugogorra naizelako. Tontorrera heldu ginen egunean, buruan sartu zitzaidan ez nuela erabakirik hartuko egunsentira arte, eta egunsentian gauzak beste kolore batekin ikusi nituen. Momentu horretan oso erraza da buelta ematea edo oxigenoa hartzea. Dena duzu aurka.

Sasoi fisikoak, teknikak eta ezagutzak asko egiten dute, baina zenbateko garrantzia du buruak horrelako helburu bat lortzeko?

Handia! Hemendik berba egitea erraza da, baina han beste kontu bat da. Ez zara ondo sentitzen, ia ez duzu lorik egin, tontorrera ezer jan barik irten ginen... Oso erraza zen buelta ematea edo oxigenoa hartzea. Beraz, burua oso garrantzitsua da, baina ez bakarrik tontorraren egu-

nean, baizik eta bidaia osoan zehar. Egun bakoitza oso garrantzitsua da. Adibidez, 7. egunean egindako akats batek eraman zaitzake, agian, tontorra ez egitera. Gure kasuan, oso zentratuta egon ginen hasieratik. Aurretik egin ditugun esperientzia guztietatik, tontorrera heldu ala ez, zerbait ikasi dugu, eta esperientzia hori baliatu dugu Manaslura igotzeko.

Eta zergatik Manaslu?

Gure buruan beste helburu bat dago, beste zortzimilako bat, baina teknikoki oso zaila da eta zortzimilako batera lehenengo aldiz joateko arrisku handiak ikusten genizkion. Beraz, horra joan baino lehen, zortzimilako bat igotzea zer den bizitza beharrezkoa zela pentsatu genuen. Zortzimilako bat oxigeno barik igotzeak zailtasunak ditu berez eta, hori orekatzeko, logistika alde-tik erraztasun asko dituen mendia aukeratu genuen, Manaslura enpresa asko joaten delako eta jende asko dabilelako.

Zen da aipatu duzun beste helburu hori?

Shisha Pangma mendiaren hegoaldeko 'bide britainiarra' igo nahiko genuke. 3.000 metroko korridorea du eta nahiko zaila da. Hala ere, ez dut uste hurrengo zortzimilakoa izango denik, aurretik beste saiakeraren bat egin beharko dugulako, eta ez dakit hori egitera helduko garen.



Lerroen arteko jokorako tartea eskaintzen duen ospitalea. PEDROARRIOLA

Deporreko hiru atleta podiumean gazte mailako Euskadikoan

Aurreko asteburuan Durangon jokatutako 16 eta 18-20 urtez azpiko Euskadiko txapelketetan, Imanol Egidazu podiumaren gorenera igo zen 110 metro hesiko proba irabazita, eta Enara Magunazelaia eta Nora Zabala bigarren kaxoira iritsi ziren xabalina eta luzera jauziko probetan, hurrenez hurren. Taldeka ere maila bikainean jardun zuten Klub Deportiboko ordezkariak, emakumezkoena azkenean laugarren izateko (brontzezko dominatik gertu) eta gizonezkoena seigarren sailkatzeko (hauek hirugarren izan ziren erreleboka). Guztira 19 atletek osatu zuten gure herriko ordezkaritza, hamar emakumezko eta bederatzi gizonezko: Izaro Bernedo (pertiga), Enara Maguna-



zelaia (xabalina), Jule Martin (100 m), Silvia Marquez (100 m), Enara Gabiola (200 m), Claudia Ferreiro (pisua), Nora Zabala (luzera-jauzia), Eneritz Trebolazabala (1.500 m), Leire Martín (400 m) eta Alaitz Sanz (800 m); eta Urko Martinez

(luzera-jauzia), Manex Gisasola (pisua), Imanol Egidazu (110 m) Kepa Marquez (100 m), Manex Sarasua (800 m), Ekhi Muruamendaraz (xabalina), Ekhi Martinez (pertika), Kalaka Gonzalez (1.500 m) eta Unai Igarza (400 m).

Astelenak atek zabalduko dizkio profesionalen denboraldiari

Gure Katedralak profesional mailako ikasturte berriaren lehenengoko jaialdia hartuko du domekan, betiko lez arratsaldeko 17:00etan hasita eta ETB-k zuzenean eskainiko duena. Jaialdi bikainaren aurrean gaude, goi mailako pilotariak osatuko baitute etzirako prestatu-

tako karteldegia. Bigarren tokian jokatuko den partidua nagusian lau eta erdiaren barruko txapelketa nagusiaren final-laurdenetako bi irabazleen arteko norgehiagoka ikusi ahal izango dugu, Aspeko Jonkin Altuna eta Baikoko Jon Ander Peña protagonista direla; horko

irabazleak ia ziurtatuta izango du finalerdietarako txartela, hori izango da jokoan.

Aurretik, jaialdia hasteko, binakako interesgarria izango da ikusgai: Elezkano eta Rezusta vs Zabala eta Zabaleta. Eta, Aspe Eibarko enpresak prestatutako jaialdia amaitzeko, Egiguren V eta Erostarbe alde batetik eta Exposito eta Eskuza bestetik, bikote bi horien artekoa izango da jokoan.

Eguazten eguerdian Astelenan bertan izan zen lau eta erdiaren barruko partidurako pilota-aukeraketan, Altunak 105,2 eta 105,8 gramokoak aukeratu zituen eta Peñak, bestetik, 104,8 eta 106,1eko pisukoak. Biak geratu ziren pozik aukeratutako pilotekin. Aurreko asteburuan galtzaile izan ziren Elordik eta Artolak osatzen dute multzoa aipatutako biekin.



Peña eta Altuna herenegun Astelenan egindako pilota-aukeraketan.

Eibartarrak-ek ekipazio berria aurkeztu zuen, areto-futboleko taldearekin batera

Klubak 140 jokalarari izango ditu guztira, zazpi taldetan banatuta: Erregionaleko 1. Mailakoa, jubenil mailako bi talde, eta kadete, infantil eta alebin mailetakoa banarekin batera, aurtengo berritasuna izango den areto-futbolekoa. Larragest Inmobiliaria izango da talde horretako babesle nagusia, Talleres Cañok Erregionaleko 1. Mailakoa babestuko du, eta Clínica Dental Gastesi eta Aker izango dira jubenil mailako taldeen babesleak. Udaletxean izandako aurkezpen ekitaldian izan ziren, Jon Iraola

alkatearekin batera, Eibartarrak FT klubeko hainbat ordezkari: Alberto Aberasturi presidentea, Aitor Campos koordinatzailea, Iñaki Osa talde nagusiaren entrenatzailea eta Jagoba Trujillo Futbol Emotion-eko ordezkaria.

Lider Erregionaleko 1. Mailan

Lau jardunaldi jokatu eta gero, gure herriko taldea bakar-bakarrik dugu Erregionaleko 1. Mailako bere multzoko sailkapenean. Azken asteburuan Zumarragako Urolari Unben 1-0 irabazita, Iñaki Osaren taldeak



Areto-futbola itzuli da Eibarko kirolera.

orain arte jokoan izan diren 12 puntuak bereganatu ditu, lau partidutan beste hainbeste (12) gol sartu eta bakarria jasota.



Urbat Waterpolo taldeak lehenengoko puntua irabazi du 2. Nazional Mailan

Maila horretan debuta egiten duen gure herriko waterpolo taldeak bere lehenengoko puntua eskuratu du ligako bigarren jardunaldian, etxean (Donostiako Paco Yoldi igerilekuan) jokaturako partiduan CN Ciutat Palmarekin 10na berdindu eta gero. Neurketaren amaieran berdinketa erabakitzeko jokaturako penaltien txandan Urbatekoek 4-5 galduta zuten. Eibarko klubetik diotenez, "partidua ikusgarria izan zen,

emozio handikoa, eta zaletuek ere bikain erantzun zuten, taldearekin guztiz identifikatuta".

Senior mailako bigarren taldeak, bestalde, barixakuan Orbean jokaturako Portugalteko Nauticaren aurkako norgehiagokan amore eman behar izan zuen azkenean, 7-18 galtzeko bizkaitarren aurrean. Gure herriko taldeak maila eman zuen aurreneko bi zatietan, baina hurrengo bietan beherantz egin zuen.

Pantxikak aurreko domekan debutatu zuen Ipuruan

SD Eibarko maskotak aurreko domekan estreinatu zuen bere ibilbidea, klubak eguerdian futbol egokitakoaren torneoan (irabazi zuena gainera) eta arratsaldean Huescaren aurka zuen partidua aprobetxatuz. Maskota oso ondo hartua izan da zaletuen aldetik eta, hemendik aurrera, Eibar FT-ko bi talde nagusien partiduetan izango du bere zeregina, beste ekitaldi batzuekin batera.





Iñigo Laskurain master mailakoa saria eman zion Jon Mugikarekin.

Eibar Igerixaneko hiru ordezkari iri errekonozimendua Gipuzkoako Galan

Anoetan aurreko astean egindako Gipuzkoako Igeriketa Federazioaren Galan, Paula Calvo eta Jon Osa galdonatu zituzten azken urtean lortutako Gipuzkoako markengatik. Biek ala biek probintziako bina marka lortu dituzte, lau kasuetan estatuko txapelketetan eskuratuak. Osak bizkar erako 50 eta 100 metro-tako probetan eskuratu ditu errekor horiek, absolutu mailan; eta Calvo bizkar erako 50ekoan eta libre erako 400 metrokoan, honek infantil mailan. Eurekin batera, Iñigo Laskurain izan zen hirugarren saritua, Eibar Igerixanekoa master mailako beteranoetan hirugarren izan delako Gipuzkoako Ur Irekietako Ligan.

Aipatutako Laskurainek ligan puntuatzen dituzten zazpietatik sei zeharkaldietan hartu du parte, tartean Eibar Igerixanek antolatzen duen FLYSCH Beltzan. Horko proba-

ko batean bigarren postua eskuratu zuen eta hirugarren izan zen beste hirutan, guztira 394 puntu batuz. Getaria-Zarautz zeharkaldian aurten Eibarko klubak aurkeztutako maila guztietako ordezkarietan onena izan zen bera, 43:34ko denborarekin, eta horrekin batera hurrengo edizioan bigarrenengo taldean (zilarrezko gorroarekin) parte hartzeko txartela eskuratu zuen Paseo Berriko podiumean izateaz gain.

Anoetako ekitaldian Jon Mugika bergararrak banatu zizkien sariak eibartarrei. Azken hori ere Eibar Igerixanetik pasatutakoa da, ondoren hainbat lehiaketatan irabazle izandakoa. Bihar izango dute Eibarko klubekoek hurrengo erronka, Azkoitian jokatu den Gipuzkoako Ligaren hasierako jardunaldiarekin. Absolutu, junior eta infantil mailetan jokatu da lehiaketa hori.

Udazkentraila prestatu dute urriaren azken domekarako

Kalamua Korrikalari Taldekoek Udazkentrailaren beste edizio bat prestatu dute, hurrengo asteburuko domeka goizean jokatu dena. Klub Deportiboko Mendi Taldeko partaide horiek antolatutako Udazkentrail23 herri-irteera hori goizeko 08:30ean abiatuko da Depporretik bertatik (goizalde horretan neguko ordutegian sartuko gara, kontuz beraz) eta toki berean izango du amaiera, 16,48 kilometroko ibilbidea osatu eta gero. Kalamuakoek hiru ordutan amaitzeko moduko dela aurreikusten dute 651 metroko goranzko metatua duen proba. Trail irteera doakoa da eta edozeinek parte hartu dezake, baina antolaketa lana errazteko izena ematea

beharrezkoa da email bidez kalamuakorrikalaritaldea@gmail.com helbidera idatziz. Bestetik, nahiz eta ibilbideak zailtasun teknikorik ez izan, antolatzaileek mendian federatuta egotea gomendatzen die parte-hartzaileei, edo norberak bere



segurua izatea. Eta baita ondorengo materiala eramatea ere: mendian korrika egiteko oinetakoak, mugikorra, zira, ura eta jateko zerbait.

Ibilbidea: Klub Deportiboa (T. Etxebarria) / Amañako paseoa / Lidleko semaforoa (2 km) / Zabortegiko bidea / Eitzaga / Aixolako errepeidea (4 km) / Urtegiko paretia (5,75 km) / Egoarbitza / Egoarbitzako zelaia (7,90 km) / Karabieta / Egotxeaga (9,25 km) / Elgetaruntz / Larrebiltzarra / Karabieta (10,50 km) / Ibur-erreka (13 km) / Elgetako bidea / Isasiko okindegiko la-beak (14,75 km). Ipurua kiroldegia / Armagintza Eskola / Eibarko Klub Deportiboa.

“Gurasoak ere eskolara” euskara ikastaroetan izena emateko epea zabalik

Eibarko Udalak eta herriko euskaltegi biek, Udal Euskaltegiak eta AEK Euskaltegiak, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako umeen gurasoentzat maila ezberdinetako euskara ikastaroak antolatu dituzte aurren ere. "Gurasoak ere eskolara" euskara ikastaroetan izena eman nahi duten gurasoek urriaren 27a baino lehen egin beharko dute beren seme-alaben ikastetxean. Eskolak astean bi egunetan emango dira, eskola-orduetan, eta seme-alabak matrikulatuta dauden ikastetxean bertan. Egitasmo horren bitartez lortu nahi da Eibar-ko umeen gurasoek euskara praktikoa ikastea umeen

euskalduntze egokian bidelagun izan daitezen. Klaseak astean bi egunetan izaten dira, gehienetan umeen eskola ordutegian (goizez edo arratsaldean). Baina eskola orduz kanpo ere sortu daiteke taldea, interesik egonez gero.

Ikasturte osoko matrikula 66€ da eta DBE (RGI) jasotzen dutenentzat 33€. Gainera, epeka ordaindu daiteke.

Ikasturtea azaroan hasiko da eta maiatzean amaituko da. Izena umearen ikastetxean eman daiteke edo 943708426 (Junkal) telefonora deituta, edo euskara@eibar.eus helbidera idatzita.

Gurasoak ere eskolara 2023-2024 Cursos de euskera para padres y madres

¿No sabes euskera y te gustaría aprender un poco?

¿Sabes un poco de euskera, pero querías mejorar tu nivel?

Euskaraz badakizu, baina gehiago ikasi nahi duzu?

Betiko zalantzak argitu eta akatsak zuzendu nahi dituzu?

Astean 2 egun. 66 € ikasturte osoa.
Epeka ordain daiteke.

Kontsultatu dirulaguntzak.

2 días a la semana. 66 € curso completo.

Posibilidad de pagar a plazos.

Consultar ayudas.

Informazio gehiago/ Más información

Euskara Zerbitzua:

euskara@eibar.eus / 943708426



"Gurasoak ere eskolara" ikastaroetan parte hartzen duten gurasoen testigantzak jaso ditugu hurrengo lerroetan. Zergatik apuntatu zineten? Zer esango zenioke beste bati animatzeko? Bideo batean ere entzun daitezke euren hitzak eta ikastaroaren zehaztasunak (ondoan daukazuen QRaren bidez edo zuzenean Eibarko Udalaren YouTubeko kanalean sartuta).

BIDEOA



ESTHER VIDAL

"Bilera baten bidez izan nuen ikastaroaren berri. Lau urteko alaba daukat eta berarekin euskaraz berba egitea gustatuko litzaidake. Nahi horrek animatu ninduen izena ematera. Apurka-apurka konturatzen zara benetan ikasten ari zarela, aurrerapausoak ematen dituzula, eta hori guztiz motibagarria da. Bide berriak irekitzen zaizkizu gainera, animatu egiten zarelako beste jarduera batzuetan parte hartzera: ipuin kontalariak, antzerkia... Ikastaroan oso gustura gaude. Ez dugu presiorik ez azterketarik, eta giroa oso atsegina da.



MALUMA MOHAMED AAMED

Nire seme-alabei eskolan hobeto euskalduntzen laguntzeko hasi nintzen ni ere euskara ikasten. Ikastaro hauek oso atseginak eta lagungarriak dira. Hemengo hizkuntza eta kultura ikasteko aukera ematen didate. Beraz, edozeini gomendatuko nioke.

SARA LAMAS

Bi alaba dauzkat eta euskara hasi nintzen ikasten nire alabak euskaldunak izateko eta nik izan ditudan arazoak ez izateko. Orain dela hiru urte hasi nintzen talde honetan, batez ere ordutegia ona zelako, eta konturatu nintzelako euskara ez dela bakarrik hizkuntza bat. Atzetik askoz ere gauza gehiago daude: euskal kultura, ohiturak... Pixkanaka nire familian guztiok sartu gara euskararen munduan eta orain denak gara euskaldunak. Taldean oso pozik gaude, bakoitza bere erritmora doalako. Ez dago azterketen presiorik eta bakoitzak ahal duena egiten du. Gutxienez, probatzea gomendatuko nuke.





Maite Arroitajauregik musikatutako bi film estreinatuko dira Semincin

Maite Arroitajauregiaren musika duten bi film estreinatuko dituzte datorren astean, urriaren 21etik 28ra ospatuko den Seminci Valladolideko Zinemaldian: Victor Iriarteren fikziozko lehen filma den “Sobre todo de noche”, frankismoan amatasunaren eta lapurtutako haurren istorio bat kontatzen duen zinema beltzeko melodrama, eta “La estafa del amor”, maitasun erromantikoaren mitoa desegiten duen Virginia Garcia del Pinoren dokumental-performancea.



Esteban Oroz Durango Uria lehiaketan saritu dute

Esteban Oroz Aizpun artista eibartarrak hirugarren saria eskuratu du ‘Durango Uria-Villa de Durango’ lehiaketaren 23. edizioan. Guztira 52 margolan lehiatu dira eta sari-banaketa ekitaldia asteburuan izan da. Durangaldeko Artisten Elkarteak antolatutako lehiaketako lehen saria, bestalde, Valentziako Jose Arnau Belentzat izan da; bigarrena, Azucena Fernandez Artetxerentzat (Muskiz); eta Durangoko lan onenaren saria Aratz Azpiri Maortuak jaso du.



Nerea Gorritiren single berriaren estreinaldia

Nerea Gorriti aktore eta abeslariak hirugarren singlea kaleratu du gaur bertan: ‘Farewell’ da abestiaren izenburua, eta YouTube eta Spotify plataformetan ikusi eta entzun daiteke. Eibartarrak ‘Sunday Morning’ eta ‘Paradox Paradise’ abestiak kaleratu ditu aurretik eta, orduan bezala, Iker Lauroba, Hilario Rodeiro eta Iñaki Salvador musikariak izan ditu lagun abesti honetan ere. Bideoklipa Aitor Mendilibarrek zuzendu du, eta bi eibartar ere izan ditu bidelagun: Amaia Galparsoro bideoaren ekoizpen lanetan ibili da eta kartela Julia Gaugerrek egin du.

San Andres bertso-paper lehiaketara aurkezteko epeak zabalik dirau

Azaroaren 3ra arte aurkeztu daitezke San Andres bertso-paper lehiaketarako lanak. Maila bi egongo dira aurten ere: 16 urtetik gorakoen mailan Euskal Herri osoko lanak



aurkeztu ahal izango dira. Gaia eta doinuak libreak izango dira, eta lau puntu edo gehiagoko 6 bertso gutxienez eta gehienez 10 aurkeztuko dira. Lanaren 3 kopia entregatuko dira gaitzizenaekin sinatuta, eta gutunazal itxian gaitzizena identifikatzeko datuak (izen-abizenak, bizilekua eta telefonoa). Bertsoak postaz bidaliko dira, edo norberak eraman ditzake, ondoko helbidera: ...eta kitto! Euskara Elkarte. Urkizu 11 solairuartea. 16 urtetik beherakoen maila, berriz, Eibarko ikasleei zuzenduta dago. Bertso bat edo bi kopia aurkeztu beharko dituzte helbide, epe eta modu berean. Irabazleek azaroaren 24an, barixakua, Coliseon egingo den San Andres Bertso Jaialdian jasoko dituzte sariak.



Iban Zalduak eta Miren Narbaizak “Ipuina engainua da” eskainiko dute domekan

Liburutegi Nazioarteko Eguna ospatzeko saioa antolatu du Juan San Martin udal liburutegiak domekarako: Iban Zalduak eta Miren Narbaizak “Ipuina engainua da” irakurraldi musikatu aurkeztuko dute, 19:00etan, Portaleko areto nagusian. Antolatzailcek azaldu dutenez, “irakurraldi musikatu bat da, zeinetan egile biak saiatuko baitira, Iban Zalduaren liburu berriko narrazioen oihartzun musikaletatik abiatuta, eta MICEko Miren Narbaizak doinuen bitartez istorioak kontatzeko daukan abileziaz baliatuta, dimentsio berri bat ematen esperientzia literarioari”.



Arrate Kultur Elkarte bazkideen erakusketa

Gaur 19:00etan zabalduko dute Arrate Kultur Elkarte bazkideen erakusketa, Topalekun. Azaroaren 5era arte egongo da ikusgai, egunero 19:00etatik 21:00etara (asteburuetan 12:00etatik 14:00etara ere). Esther Fdz. De Maruri, Eli Eguren, Vicente Iriondo, Bakarne Elejalde, Jose Luis Irigoien, Karla Black Bird, Santiago Entrena, Arrate Osoro, Esteban Oroz, Mireia Agirrebeña, Fernando Retolaza, Mamen Piriz, Angel Güenaga eta Jesus Belaustegi artisten lanak egongo dira.



Julen Leturiondo ETB-1eko “Ztanda” saio berrian

Julen Leturiondo musikari eta abeslari eibartarrak ETB1-eko Ztanda programa berrian hartuko du parte, Euskal Herriko beste 12 gazterekin batera. Lehen gala domekan emango dute, 22:05etik aurrera. Barbara Goenagak aurkeztuko du talent showa, Iker Villarekin batera. 13 lehiakidek hartuko dute parte, eta garai guztietako euskal kanta interpretatu beharko dituzte.


Kike Amonarrizen ‘Haurren aurrean helduok heldu’ hitzaldia

Eibarren Akebai plataformak Kike Amonarrizen hitzaldia eta haurrentzako tailerra antolatu du hilaren 24rako. ‘Haurren aurrean helduok heldu’ da egitasmoaren izenburua eta 18:45ean hasiko da, Errebal Plazako lehen solairuan. Ekimenaren helburua helduen arteko euskararen erabileran eragitea eta umeekiko hizkuntza eredugarritasuna bultzatzea da. Kike Amonarrizek umeen hurbileko helduek hizkuntza-portaez izan ditzaketen zalantzak argituko ditu hitzaldian. Saioa irekia eta doakoa izango da, eta haurrentzako tailerra egongo da.

Usartzako txistularien kontzertua



Usartza Txistulari Taldeak kontzertua emango du domekan, 12:45ean, udal-tereko arkupeetan. Enrique Monterok zuzenduko du eta pieza hauek joko dituzte: Txistulariak (rapsodia, Victor de Zubizarreta), Kitto (suite vasca, J. M. Gonzalez Bastida), Baztan (Tomas Garbizu), Happy Mallets (Harm Evers. Mold: Juanma Saez) eta Hiru kanta (J. M. Iparragirre. Mold: J. I. Ansorena).



L A B I R I N T O A



**AURKITU
10 EZBERDINTASUNAK**



ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

		1					
3	1			9		2	
					5	8	
1		2	9	5		3	
	4	3			9	6	
	9		6	3	2	1	
6	4						
2			8			7	5
				6			

0	2	7	8	1	9	6	0
1	0	2	7	8	1	9	6
2	1	0	2	7	8	1	9
3	2	1	0	2	7	8	1
4	3	2	1	0	2	7	8
5	4	3	2	1	0	2	7
6	5	4	3	2	1	0	2
7	6	5	4	3	2	1	0
8	7	6	5	4	3	2	1
9	8	7	6	5	4	3	2

soluzioa

**S
U
D
O
K
U**

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

			4				
			6	1		5	4
	4	6		7		1	
1			7			2	
8	5					6	7
		2			3		8
		1		4		3	7
3	2		1		6		
			5				

0	2	7	8	1	9	6	0
1	0	2	7	8	1	9	6
2	1	0	2	7	8	1	9
3	2	1	0	2	7	8	1
4	3	2	1	0	2	7	8
5	4	3	2	1	0	2	7
6	5	4	3	2	1	0	2
7	6	5	4	3	2	1	0
8	7	6	5	4	3	2	1
9	8	7	6	5	4	3	2

soluzioa

Urriak 20 - 26

ZAPATUA 20

BARIXAKUAK JOLASIAN

17:00 Barixakuak Jolasian. Txaltxa Zelai (jubilatuen egoitza gaineko parkea).

INAUGURAZIOA

19:00 Arrate Kultur Elkarteko bazkideen erakusketa. Topaleku.

ZAPATUA 21

AZOKA

10:00/14:30 Debabarreneko Gazta Azoka. Untzaga.



TAILERRA

11:00/14:00 Akuarela tailerra (hastapena), Santi Entrenaren eskutik. Ipuruako merkatu plaza.



DANTZA

19:00 "La Bestia Negra" (Proyecto Piloto). 5 euro. Coliseo.



DOMEKA 22

IRTEERA

09:30/13:00 Ezkur eta hazi bilketa, Eibarko Baso Biziak-en eskutik. Untzagatik abiatuta



MUSIKA

12:45 Usartza Txistulari Taldearen kontzertua, Enrique Monterok zuzenduta. Udaletxeko arkupeak.



LITERATURA

19:00 "Ipuina engainua da" irakurraldi musikatua, Iban Zaldua eta Miren Narbaizaren eskutik. Portalea (areto nagusia).



MARTITZENA 24

HITZALDI-TAILERRA

18:45 "Haurren aurrean helduok heldu", Kike Amonarriren eskutik. Eibarren Akebaik antolatuta. Errebal Plaza (1. solairua).



EGUAZTENA 25

PINTXO LEHIAKETA

Egun osoan, izena eman duten 13 tabernetan.



TXAPELKETA

18:00 Belaunaldien arteko futbolen txapelketa, bikoteka. Untzaga Gizarte Etxea.

EGUENA 26

PINTXO LEHIAKETA

Egun osoan, izena eman duten 13 tabernetan.

ODOL-EMATEA

16:50/20:50 Odola ematera joateko saioa, odol-emateentzat. Untzaga jubilatuta etxea.

BILERA IREKIA

18:30 Azaroaren 30ean egingo den Greba Feminista prestatzeko. Andretxea.

ANTZERKIA

19:00 "Estoy bien" (Helduen Hitz). 3 euro. Coliseo.

PERFORMANCEA

19:30 "Heybar", Javier Rodriguez Perez-Curielen eskutik. Portalea (erakusketa aretoa).

ERAKUSKETAK

Domekara arte:

- "ZERGATIK? HARGATIK!". (Portalea).

Urriaren 20tik

azaroaren 5era arte:
- **ARRATE KULTUR ELKARTEKO BAZKIDEEN erakusketa.** (Topaleku).

Urriaren 26tik

azaroaren 19ra arte:
- "HEYBAR", Javier Rodriguez Perez-Curielen instalazioa. (Portalea).

Eskualdeko Agenda

ELGETA

20an (BARIXAKUA) KONTZERTUA

20:00 / Ozkarbi Elkarte
Txuma Murugarren Trio

ERMUA

20an (BARIXAKUA) KONTZERTUA

20:30 / Ermua Antzokia
Angel Stanich
21ean (ZAPATUA)

KONTZERTUA


20:30 / Lobiano Kulturgun
The Four Breakers

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **22an:** 20:00
- **23an:** 19:30

“Cerrar los ojos”
DRAMA



2023/Espainia/169'
Zuzendaria: Victor Erice
Aktoreak: Manolo Solo,
Jose Coronado, Ana Torrent
Zinea zinearen barruan

2 ARETOA

- **21ean:** 22:30
- **22an:** 17:00, 20:00
- **23an:** 19:30

“Mi otro Jon”
KOMEDIA



2023/Espainia/125'
Zuzendaria: Paco Arango
Aktoreak: Carmen Maura,
Olivia Molina, Fernando Albizu
Osasun arazoak/Drama

ANTZOKIA

- **21ean:** 16:00 (1), 20:00 (1)
- **22an:** 16:00 (1 Aretoa), 20:00
- **23an:** 19:30

“Los asesinos de la luna”
DRAMA



2023/AEB/206'
Zuzendaria: Martin Scorsese
Aktoreak: Leonardo DiCaprio,
Robert De Niro, Lily Gladstone
Thriller-a/Gertatutakoa

ANTZOKIA

- **21ean:** 17:00, 19:45 (2 Aretoa)
- **22an:** 17:00

“La patrulla canina”
ANIMAZIOA



2023/Hegoafrika/92'
Zuzendaria: Cal Brunker
**Txakurrak eta otsoak/
Abenturak**



Ignacio Zamacola Zubia

2. URTEURRENA
2021/10/23

“Gure bihotzetan beti maite izango zaitugu”

- ETXEKOAK -



MARITXU Gantxegi 2019/01/12

TERE Gantxegi 2020/10/15



BETIRAKO GURE BIHOTZETAN

- ETXEKOAK -

943 20 67 76

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **MIREN**, atzo 7 urte bete zenduaz-en-eta. Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, **AITOR!** Martitzenian 6 urte bete zenduaz-en-eta. Musu eta besarkada haundi bat famelixaren partez. Maite zaittugu.



Zorionak, **UNAI**. 8 urte egitten dittu gaur gure mutil haundixak! Musu pilla bat etxeko danon partetik.



Zorionak, **TELMO!** Hillaren 16xan gure etxeko txiki-xak urtetxua bete zeban! Jarraittu gure bihotzak alaitzen! Patxo asko etxekuen partez!



Zorionak, **IAN!** Martitzenian 9 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **SOLLY!** 2 urte honezkerro! Amaren eta aittaren maittasun guztia zuretzat.



Zorionak, **MIKEL**, martitzenian 11 urte bete zenduaz-en-eta. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **DANEL!** Gaur 3 urte betetzen dozuz-eta. Segi beti bezain alai. Musu haundi bat maitte zaittugunon partez!



Zorionak, **NORA**, hillaren 12xan urtiak bete zenduazelako. Laztan haundi bat famelixa guztiaren partez. Asko maitte zaittugu!



Zorionak, **MARA!** 8 urte! Jarraittu holan! Musu haundi bat etxekuen eta, batez be, Xabi, Ane eta Lukenen partez.



Zorionak, **SARA**, etxeko printzesa txikixa, 15ian zure eguna izan zan-eta. Zure ahizpatxo Mariak, amak eta aitatxok asko maite zaittugu.



IZAN Cid Muñozek 3 urtetxo bete zittuan hillaren 18xan. Zorionak bere aitta, ama, amama eta Jafeht eta Ekai neben partez.



Zorionak, **PAULA!!** Etxeko txikitxua haundi egitten ari zaigu. Daguaneke 7 urte, printzesa!! Asko maite zaittugu. Aitta, ama, Lucia eta amama.



Zorionak, **DANEL!** Gaur 3 urte beteko dozuz-eta! Musu haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Julen eta Markelen partez.



Zorionak, **LAIA**, 10 urte bete dozuz-eta. Musu haundi bat eta ondo pasa lagunekin pizza jaten.



Zoriona, **ANE**, hillaren 26xan 6 urte beteko dozuz-eta. Famelixaren partez. Maite zaittugu.



Zorionak, **JON!** Domekan 3 urte beteko dozuz-eta. Musu erraldoi pillua etxeko guztien partez.



Zorionak, **EDU** (hillaren 16xan 50 urte) eta **ITZA** (astelehenian 20 urte)! Ondo-ondo ospatu. Laztan haundi bana famelixa guztiaren partez.

Iragarki laburrak



943 20 67 76
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.2. Errentan

- Buhardila-loft txikia alokagai Eibarko erdialdean azarotik aurrera. Igoailua eta aire egokitua. 686829613.
- Mutil batek logela bilatzen du Elgoibar edo Mendaron. 604201186.
- Pisua alokagai Eibarko erdi aldean. 943031363.

3. LOKALAK

3.2. Errentan

- Garaje itxia alokagai San Pion. Zabala eta sarrera onarekin. 652775746.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 611571297.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (baita ospitalean ere) eta garbiketarak egiteko. Orduka. 632768653.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (baita ospitalean ere) eta garbiketarak egiteko. Orduka. 632844780.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 641421135.
- Emakumea eskaintzen da garraiolari bezala, furgonetarekin. Prezio onak. 612223075.
- Gizona eskaintzen da edozein lanetarako. 612518275.
- Gizona eskaintzen da edozein lanetarako. 602381455.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarak edo errekaduak egiteko eta umeak zaintzeko. Orduka. 612223075.
- Emakumea eskaintzen da etxeak garbitzeko eta umeak zaintzeko. 615379164. Elsa.
- Emakumea eskaintzen da etxeak garbitzeko eta nagusiak zaintzeko 13:00etatik aurrera. 620757528.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Orduka. 643518492.
- Emakumea eskaintzen da etxearen obren amaierako garbiketarak egiteko eta nagusiak zaintzeko arratsaldean. 638421827.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. 637222318.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko goizean. 602800266.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko (tituluarekin). Esperientzia eta erreferentziak. 604120104.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita ospitalean edo gauez ere. 632844780
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita ospitalean edo gauez ere. 632768653.

5. IRAKASKUNTZA

5.1. Eskaerak

- Neska behar da 2. DBHko ikasle bati etxean partikularrak emateko arratsaldean (17:00-18:00). 624231204. Hassan.

5.2. Eskaintzak

- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizean ikasteko aukera. 677592509. Alberto.



osasun gida

Medikuntza Estetikoak

ANE VESGA
CLINICA MEDICINA ESTETICA

Mediku Estetikoak
Kirurgia Orokorra
eta Digestio-Aparatukoak

Arragueta Zbis B, Entrepianza A
623 003 251 info@draanevesga.com
WWW.DRAANEVESGA.COM



Podologoak

ELENA AIZPUN
PODOLOGOA

838200124
kolegiatu zerbakia



T. Etxebarria, 5 - 1. A
943 12 14 93 / 696 555 208

Psikologoak

Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa

Ψ Oscar Mondragon Lili
OKIETZ ETA ARRATZALDEZ

Urkizu, 13 - behea
Tel. 943206823 / 686859023

Okulistak

Recalde
Clinica Oftalmologica
Oftalmologi Klinika

-Kataraten eta
presbiziaren
kirurgian espezialistak.

R.P.S. 204/13

Plaza Barria 2, 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com



BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050

ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943 799746

PODOLOGOA
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagola Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)



PSIKOTERAPIA ZENTRUA

HAUR, NERABE ETA
HELDUENTZAKO
PSIKOTERAPIA

943 20 22 66
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea
www.arratepsicoterapia.com




PODOLOGOA

Maidor
Lopez
Etxebarria

Arragueta 2 Bis-B, Behea B
Tñoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.




943-206776

EIBARREN

Zuatzu Klinika da zure konfiantzazko klinika



**Ginekologia
eta Obstetrizia**



**Jaio aurreko
diagnostikoa**



**Laguntza
Bidezko Ugalketa**



**Bularreko
patologia**

3 Mediku
profesional zuri
arreta emateko

Eskatu zure hitzordua
Zuatzu Eibar
Urkizu Pas., 11 (1. solairua)
943 121 021